

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 606/2019 Erabakia, urriaren 1ekoa. Onspena ematea Alain Coloma Jimenez jauna aholkularitza bereziko eginkizunak dituen behin-behineko langile izendatzeari

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 artikuluan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapenean jasorikoarekin bat etorriz, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko aholkulari berezi lanpostuak beteko dituztenak izendatzea.

Horregatik, diputatu nagusiak proposatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.11 artikulua aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Alain Coloma Jimenez behin-behineko langileek betetzekoa den aholkulari teknikoaren lanposturako izendatzea (kode zenbakia: 1122.007). Erabaki honek 2019ko urriaren 2tik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE